



# DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

---

**Donostiako Udala - 2023ko Aurrekontuak**

---

4. alea - Udaleko Elkarteak

---

## Aurkibidea

<b>1. Donostiako Sustapena, S.A.</b>	<b>6</b>
<b>2. Balneario de la Perla del Océano Sozietatea, S.L.</b>	<b>12</b>
<b>3. Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa</b>	<b>14</b>
3.1. Programaren jarduera-lerroa	14
3.2. 2023. urteko helburuak	14
<b>4. Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.</b>	<b>18</b>
4.1. Diru-sarrerak	18
4.2. Gastuak	19
<b>5. Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa</b>	<b>21</b>
5.1. 2023 urteko helburuak:	21
5.2. Kontu nagusiak	21
<b>6. Anoeta Kiroldegia, S.A.</b>	<b>26</b>
6.1. Gastuak	26
6.2. Sarrerak	27
<b>7. Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.</b>	<b>30</b>
<b>7.1. Programaren jardute ildoak</b>	<b>30</b>
7.1.1. Dbus autobusak elektrifikatzeko plana eta konpainiaren kotxetegietan eta bulegoetan eragingarritasun energetikoa eta iturri berriztagarrien erabilera sustatzeko programa.	30

**7.2. Programaren jardute ildoa 30**

7.2.1. Garraio publikoaren digitalizazioa 31

7.2.2. Dbizi hobetzeko plana gauzatzea 32

**7.3. Programaren jardute ildoa 32**

7.3.1. Zerbitzuaren etengabeko hobekuntza 32

7.3.2. Kalitate-ziurtagiriak 32

7.3.3. Marketing eta komunikazio plana 33

7.3.4. Emakume eta gizonen berdintasunerako plan 33

7.3.5. Euskara plana 34

**8. Donostia Turismo, S.A. 38**

8.1. Programaren helburuak 38

8.2. 2023rako helburuak 38

## Taulen aurkibidea

1. taula: Donostiako Sustapenaren programa osagaiak	9
2. taula: Donostiako Sustapenaren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	9
3. taula: Donostiako Sustapenaren gastuen ekonomi balioztapena	9
4. taula: Donostiako Sustapena. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	10
5. taula: Donostiako Sustapena. Orokorra. Gastuen azalpena	10
6. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatearen programa osagaiak	12
7. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatearen diru-sarrerren ekonomi balioztapena	12
8. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatearen gastuen ekonomi balioztapena	12
9. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatea. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	13
10. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatea. Orokorra. Gastuen azalpena	13
11. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren programa osagaiak	15
12. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	15
13. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren gastuen ekonomi balioztapena	15
14. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	16
15. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren. Orokorra. Gastuen azalpena	17
16. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.ren programa osagaiak	19
17. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.ren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	19
18. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.ren gastuen ekonomi balioztapena	19
19. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	20
20. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A. Orokorra. Gastuen azalpena	20
21. taula: Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren programa osagaiak	23

22. taula: Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	23
23. taula: Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren gastuen ekonomi balioztapena	23
24. taula: Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	24
25. taula: Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa. Orokorra. Gastuen azalpena	24
26. taula: Anoeta Kiroldedia, S.A.ren programa osagaiak	27
27. taula: Anoeta Kiroldedia, S.A.ren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	28
28. taula: Anoeta Kiroldedia, S.A.ren gastuen ekonomi balioztapena	28
29. taula: Anoeta Kiroldedia, S.A. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	28
30. taula: Anoeta Kiroldedia, S.A. Orokorra. Gastuen azalpena	29
31. taula: Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.ren programa osagaiak	34
32. taula: Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.ren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	34
33. taula: Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.ren gastuen ekonomi balioztapena	35
34. taula: Donostiako Tranbia Konpainia, S.A. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	36
35. taula: Donostiako Tranbia Konpainia, S.A. Orokorra. Gastuen azalpena	36
36. taula: Donostia Turismo, S.A.ren programa osagaiak	39
37. taula: Donostia Turismo, S.A.ren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	40
38. taula: Donostia Turismo, S.A.ren gastuen ekonomi balioztapena	40
39. taula: Donostia Turismo, S.A. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	41
40. taula: Donostia Turismo, S.A. Orokorra. Gastuen azalpena	41

## 1. Donostiako Sustapena, S.A.

Gobernu Planaren esparrua eta tokiko mailan ditugun aukerak eta erronkak kontuan izanda, oinarrizko 4 ekintza-lerro zehaztu dira 2023. urteko aurrekontuaren zutabe gisa.

Lehenengoa: lan-aukerak (izaera kualifikatukoak nahiz kualifikazio gutxiagoak) sortzeko beharrei arreta jartzea. 2022 urtean langabezia-tasa (% 7,8) pandemia aurreko mailetara iritsi zen arren, eta nabarmen hiru euskal hiriburuetakoa baxuena bada ere, adierazle horrek egoera bereziki kezagarria adierazten du 45 urtetik gorako taldean, multzo horretan ia % 60ra iristen baita. Horrez gain, langabezia-tasak emakumeei eragiten die gehienbat, ez soilik 45 urtetik gorako taldean, baizik eta langabezia-tasa osoa kontuan izanda (emakumeen langabezia-tasa % 9,6koa da, eta gizonezkoena % 7,3koa). Gehiago zehaztuz, maila geografikoan, ekialdeko barrutian kontzentratzen da gehienbat (langabeziaren % 32,7 ordezkatzeko du, hiriko biztanleria osoaren % 25a izanik). Eta horri giltzarri den talde bat gehitu behar diogu: gazteena. Indar berezia jarri behar dugu talde horretan datozen urteetarako. % 15 inguruko langabezia-tasa eta kualifikazio-maila altua duen taldea da gazteena. Hala, gazteek laguntza behar dute lehen enplegua lortzeko, enpresa-sare gero eta sofistikatuago batekin konektatzeko eta gure hirian beren bizi-proiektua eta proiektu profesionala aurrera eramaten lagunduko dieten programak eskura izateko.

Erradiografia horretan oinarritzen da gure jarduna, eta, hain zuzen, ildo horretan daude Reaktivate programaren barruan prestatu ditugun ekintzak. Programa horren bidez, akonpainamendua egiteko prozesu integral bat proposatzen da, bereziki, zailtasun handienak dituzten taldeei zuzendua, eta enplegurako orientabide eta prestakuntza teknikoa eskaintzen ditu, bereziki aukera-nitxo batzuetan arreta jarriz (soziosanitarioa, ostalaritza, administrazioa...).

Gazteen kasuan, prestakuntza eta garapen profesionala bultzatzeko programa integral bat aurrera eramatea proposatzen da. Bereziki, hiriko enpresa-ekosistemarekin lotutako programa bat izango da, eta, horretarako, zenbait ibilbide landuko dira (besteak beste, nazioarteko esperientziak eta kontratazioarako laguntzak), baliabideak programa pilotuetan, arlo zientifiko-teknologikoko emakumeen kontratazioan nahiz bertako gazte talentudunen

etxebizitzarako sarbidea bultzatzeko jardueretan kontzentratuz. Horrekin loturik, garrantzi berezia emango zaio hezkuntza-alorrarekiko konexioari.

Bigarren jarduera-lerroa, berriz, Zientzia eta berrikuntzaren hiria bultzatzeko apustuan jartzen dugu arreta. Donostia zientziaren eta berrikuntzaren hiria da dagoeneko. Hala erakusten duten hainbat adierazle ditugu; besteak beste, hauek: batetik, I+G inbertsioak tokiko BPGan duen pisua % 3tik gorakoa da dagoeneko; bigarrenik, ezagutzen oinarritzen diren jarduerak garatzen dituen enpresa-parkearen hazkundera (% 14ko hazkundera 2011ko datuekiko) eta, hirugarrenik, hirian I+G arloan lan egiten duten pertsonen kopurua (6.000 baino gehiago, hau da, populazio aktiboaren % 5 inguru). Adierazle oso nabarmenak dira egiaz, eta mundu mailan goi-mailan dauden eskualde eta hirietako adierazleekin konparagarriak.

Hori horrela izanik, batetik, zientzia eta teknologiaren ekosistemari laguntzea izango da helburua, enpresei zuzendutako transferentzia teknologikoan eta proiektu ekintzaileetan arreta jarriz, eta, horrez gain, arlo horretako talentua erakarri eta garatzeko gaitasuna indartzeko jarduerak egingo dira. Hain zuzen, horrekin loturik, Talent House 2 proiektua azpimarratu behar da. Hala, ekipamendu berria jarriko da martxan urtearen bigarren erdian, honako helburu hauekin: batetik, berrikuntzarekin eta ikerketarekin lotutako profil profesionalak erakartzen laguntzea, profil ekintzaileei edo enpresa-talentuarekin loturiko profilei arreta gehiago jarriz, eta, bestetik, hiriaren erdigunean ekintzailatza eta berrikuntza bultzatzeko espazio bat sortzea.

Ekintzailatza Plan berri batez gain, 2023an, garrantzi berezia emango zaio bioteknologiaren sektoreari, eta bereziki, sektore horretako zutabe batzuei (materialak, gailu medikoak eta terapia aurreratuak). Hiriko aukera-sektore eta -nitxoetako bat da bioteknologiarena, indarra hartzen ari diren enpresa berriak baitaude, eta horri osasun-ekosistema propioa gehitu behar zaio. Alde horretatik, hainbat programa sakonduko ditugu, tokiko ekosistemarekin lankidetzaren areagotuz eta, aldi berean, nazioarteko loturak eta posizionamendua bilatuz.

Berrikuntzaren alorrean, funtsezko bi alderdi konektatzera bideratutako programak indartuko dira: talentua eta enpresa-proiektu berritzaileak. Horretarako, laguntzak emango dira, eta, horrez gain, espazio eta tresna berriak landuko dira, berrikuntza-ekosistemaren barruko lankidetzaren kohesionatu eta bultzatzeko helburuarekin.

Hirugarren jarduera-lerroa izaera tradizionala duten baina enpleguan eta enpresa-sarean pisu garrantzitsua duten sektoreekin lotuta dago: merkataritza eta ostalaritza, edo hainbat sektore biltzen dituen sektore batekin: turismoarekin. Hala, ibilbide eta egoera desberdinak izan arren, merkataritzak eta ostalaritzak enpleguaren % 18 inguru ordezkaten dute, eta hiriko establezimendu guztien % 21 baino gehiago sektore horretakoak dira. Merkataritzak hainbat erronka garrantzitsu ditu aurrean: digitalizazioa, belaunaldi aldaketa, merkataritzaren desertifikazioa eta kontsumo-eredu berriak, besteak beste. Ostalaritzaren kasuan, pandemiak gehiago zigortutako sektorea izan arren (2020an ia % 50 murriztu ziren salmentak), azkar suspertu da. Hala ere, hainbat erronka dituen sektorea da; besteak beste, profil profesional egokien beharra, digitalizazioa eta negozio-eredu berriak. Hori horrela izanik, eta NEXT Generation esparruan aurkeztu eta onartutako proiektuetan oinarrituz, 2023 eta 2025 artean hainbat proiektu jarriko ditugu martxan erronka horietako batzuei heldu asmoz. Hala, saltokien kasuan, ekintzailtza bultzatzeko programak, merkataritza-lokalen programa, sustapen-ekintzak, jasangarritasuna eta ekonomia zirkularra bultzatzeko ekintzak eta sektorerara bideratutako berrikuntza-proiektu berriak aurreikusten dira. Ostalaritzaren kasuan, eta turismoaren aukera eta erronka berriekin loturik, honako hauek aipatu behar dira: energia-eraginkortasunarekin lotutako ekintzak, digitalizazioko, prestakuntzako eta talentua erakartzeko proiektu traktoreak eta balio-kate osoa hartzen duten lan-programa berriak.

Laugarren lerroa hiri-eraldaketarako proiektuekin lotuta dago, eta esparru kontzeptual berriekin eta europar finantziazioarekin lotutako esku-hartzeak biltzen ditu nagusiki. Azken urteetan landutako programa eta proiektu batzuk amaitu ondoren, hiri-espazioei buruzko eskema eta proiektu berriak proposatu dituzte beste sail eta erakunde batzuek, baita enpresa pribatu eta zentro teknologikoek ere. Horien artean, berriki onartutako proiektuak daude. Adibidez, Altzaren berroneratze integralarekin lotutakoa, hiri-espazio berrien azterketa eta proposamena (baita industrialde eta enpresa-espazioak ere) eta ekonomia zirkularrekin lotutako ekimen berriak. Horiek guztiak aukera-esparruak dira, eta katalizatze eta konektatzeko papera betetzen dute.



Proiektu eta ekintza guzti horien atzean, garrantzi berezia dute barneko eta zeharkako izaera duten jarduera batzuek; besteak beste, hauek:

- » Next Generation proiektuen aurkezpenarekin lotutako ahalegina eta jarduera. Proiektu horiek bidez, finantziario-aukera berriak lortzen dira, Europako programazio-esparru berriaren barruan.
- » Arreta-zerbitzuak eta kudeaketa-tresnak digitalizatu eta berraztertzea.
- » Informaziorako eta berrikuntzarako barne-dinamika berriak bultzatzea.
- » Lehentasun tematiko eta estrategiko berrietara egokitutako higiezin-aktiboen kudeaketa aztertu eta hobetzea.

### 1. taula: Donostiako Sustapenaren programa osagaiak

Programa osagaiak	Zenbatekoa	%
Donostiako Sustapena	22.745.876,00	100,00
<b>Guztira</b>	<b>22.745.876,00</b>	<b>100,00</b>

### 2. taula: Donostiako Sustapenaren diru-sarreraren ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Zuzeneko zergak	0,00	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	0,00
3	Tasak eta bestelako zergak	1.746.265,00	7,68
4	Transferentzia arruntak	9.753.516,00	42,88
5	Ondare-sarrerak	3.616.887,00	15,90
6	Inbertsio errealen besterenganaketa	7.232.208,00	31,80
7	Kapital-transferentziak	397.000,00	1,75
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	0,00	0,00
<b>Guztira</b>		<b>22.745.876,00</b>	<b>100,00</b>

### 3. taula: Donostiako Sustapenaren gastuen ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal-gastuak	3.421.546,00	15,04
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	7.900.582,00	34,73
3	Finantza-gastuak	0,00	0,00
4	Transferentzia arruntak	3.794.540,00	16,68
6	Inbertsio errealak	7.629.208,00	33,54
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	0,00	0,00
<b>Guztira</b>		<b>22.745.876,00</b>	<b>100,00</b>

#### 4. taula: Donostiako Sustapena. Orokorra. Diru-sarreraren azalpena

Diru-sarreraren azalpena	Zenbatekoa
<b>3. kapitulua</b>	
Zerbitzuak ematea	1.426.775,00
Bezeroei eragindako gastuen sarrerak	319.490,00
<b>3. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>1.746.265,00</b>
<b>4. kapitulua</b>	
Donostiako Udalak emandako diru-ekarpena (gastu arrunta)	7.025.000,00
Estatuko ekarpena	6.000,00
Eusko Jaurlaritzaren diru-ekarpena	1.393.680,00
Foru Aldundiaren diru-ekarpena	200.000,00
Europa Batasunaren diru-ekarpena	1.128.836,00
<b>4. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>9.753.516,00</b>
<b>5. kapitulua</b>	
Alokairugatik sarrerak	2.316.887,00
Hotelen kanona	1.300.000,00
<b>5. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>3.616.887,00</b>
<b>6. kapitulua</b>	
Eraikinen salmenta	7.232.208,00
<b>6. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>7.232.208,00</b>
<b>7. kapitulua</b>	
Donostiako Udalak emandako diru-ekarpena ( Next Generation enkargua)	397.000,00
<b>7. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>397.000,00</b>
<b>Guztira</b>	<b>22.745.876,00</b>

#### 5. taula: Donostiako Sustapena. Orokorra. Gastuen azalpena

Gastuen azalpena	Zenbatekoa
<b>1. kapitulua</b>	
Langileen ordainsariak	2.548.434,00
Gizarte-aseguruak	796.928,00
Elkarkidetza	39.634,00
Langileen prestakuntza	28.350,00
Beste hainbat gizarte-laguntzak	8.200,00
<b>1. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>3.421.546,00</b>

**5. taula: Donostiako Sustapena. Orokorra. Gastuen azalpena**

Gastuen azalpena	Zenbatekoa
<b>2. kapitulua</b>	
Profesional kontratazioa eta ohiko zerbitzuak	2.929.670,00
Ez-ohiko azterketa teknikoak	804.521,00
Gainontzekoentzat kurtsoak	28.240,00
Alokairuak, mantenimendua eta hornidurak	2.564.080,00
Aseguruak	17.175,00
Argitalpenak, komunikazioa eta ordezkaritza gastuak	21.132,00
Komunikazioak	41.572,00
Bidaiak, ostatu gastuak eta dietak	100.562,00
Lanaldietan eta beste gertakizunetan antolakuntza eta parte hartzea	1.055.942,00
Beste hainbat gastu txiki	34.197,00
Banku zerbitzuak	17.508,00
Tributuak	285.983,00
<b>2. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>7.900.582,00</b>
<b>4. kapitulua</b>	
Sariak, diru-laguntzak eta beka	3.794.540,00
<b>4. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>3.794.540,00</b>
<b>6. kapitulua</b>	
Talent House II	6.542.208,00
Talent House II ekipamendua	690.000,00
NG:Trantsizio berdea eta iraunkorrerako ekintzak (Helmugan jasangarritasun turistikorako plana)	100.000,00
NG:Trantsizio energiako ekintzak (helmugan jasangarritasun turistikorako plana)	108.000,00
NG:Lehiakortuarako ekintzak (helmugan jasangarritasun turistikorako plana)	189.000,00
<b>6. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>7.629.208,00</b>
<b>Guztira</b>	<b>22.745.876,00</b>

## 2. Balneario de la Perla del Océano Sozietatea, S.L.

2023an Sozietateak aurreko urtetako ekintzekin jarraituko du, bere aurrekontua mantenduz. Sarrerren aldetik, bakarrik bere ondarearen alokairuak kudeatuz hornitzen da eta gastuetan aldiz, ondarearen mantenua, administrazio eta finantza gastuak ditu.

### 6. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatearen programa osagaiak

Programa osagaiak	Zenbatekoa	%
Balneario de la Perla del Océano Sozietatea	639.396,00	100,00
<b>Guztira</b>	<b>639.396,00</b>	<b>100,00</b>

### 7. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatearen diru-sarrerren ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Zuzeneko zergak	0,00	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	0,00
3	Tasak eta bestelako zergak	0,00	0,00
4	Transferentzia arruntak	0,00	0,00
5	Ondare-sarrerak	639.396,00	100,00
6	Inbertsio errealen besterenganaketa	0,00	0,00
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	0,00	0,00
<b>Guztira</b>		<b>639.396,00</b>	<b>0,00</b>

### 8. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatearen gastuen ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal-gastuak	0,00	0,00
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	469.120,00	73,37
3	Finantza-gastuak	0,00	0,00
4	Transferentzia arruntak	0,00	0,00
6	Inbertsio errealak	0,00	0,00
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	170.276,00	26,63
9	Finantza-pasiboak	0,00	0,00
<b>Guztira</b>		<b>639.396,00</b>	<b>100,00</b>

### 9. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatea. Orokorra. Diru-sarrereren azalpena

Diru-sarrereren azalpena	Zenbatekoa
<b>5. kapitulua</b>	
Alokairugatik sarrerak	639.396,00
<b>5. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>639.396,00</b>
<b>Guztira</b>	<b>639.396,00</b>

### 10. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatea. Orokorra. Gastuen azalpena

Gastuen azalpena	Zenbatekoa
<b>2. kapitulua</b>	
Kanpoko zerbitzuak	243.803,00
Zergak	225.317,00
<b>2. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>469.120,00</b>
<b>8. kapitulua</b>	
Defizit edo superabitaren ondorioz aurrekontua orekatzeko eragiketak	170.276,00
<b>8. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>170.276,00</b>
<b>Guztira</b>	<b>639.396,00</b>

## 3. Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

DONOSTIAKO ETXEGINTZA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA

Programa honen Gobernu Programaren epigrafea:

Etxebizitza eta hirigintza

### 3.1. Programaren jarduera-lerroa

Programa honen helburua Donostiako Etxebizitzaren Udal Plana garatzea da, Donostiako Etxebizitzaren Enpresa Erakunde Publikoaren bidez.

### 3.2. 2023. urteko helburuak

Programa honen lehen helburua da alokairuko udal-babes publikoko bizitegi-sistemaren baliabideak bideratzea bizitegi-egoera bereziki ahulean dauden kolektiboak.

Horretarako, arreta berezia jarriko da etxebizitzak esleitzeko prozeduretan baremazio-irizpideak zehazteko orduan, eta alokairuko babes publikoko etxebizitzaren udal-parkearen kudeaketan alderdi soziala indartuko da.

Gaur egun, parke hori 1.954 etxebizitzaz osatuta dago, eta haren kudeaketak aurreikusita dago Etxebizitzako Enpresa Erakunde Publikoan 2.915.000,00 euroko finantza-baliabideen defizita sortzea 2023. urtean.

Defizit horren arrazoia da errenta-politika kolektibo ahulenei zuzenduta dagoela, eta ez direla behar adina finantza-baliabide sortzen alokairuko etxebizitzaren udal-parkea kudeatzeak dakartzan premia guztiei erantzuteko.

Bigarren helburua alokairuko etxebizitzaren eskaintza handitzea da, arrazoizko prezioetan, egoera ahulenean dauden kolektiboak etxebizitza eskuratzen laguntzeko.

Helburu hori lortzeko, hainbat jarduera-ildotan lan egiten da.

Batetik, ALOKABIDE udal-programaren kudeaketa, etxebizitza pribatu hutsak erakarri eta alokairuan jartzeko, arrazoizko prezioetan eta jabeentzako bermeekin.

Bestalde, babes publikoko etxebizitza berriak sustatzea, ahal dela alokairu-erregimenean. Horretarako, 2023an dagozkion eraikuntza-proiektuak idatziko dira, udal-plangintzak baimentzen dituen hirigintza-eremuetan sustapen berriak garatzea ahalbidetzeko.

Alokairuko etxebizitzaren udal-parkea birgaitzea ezinbestekoa da etxebizitza babestuaren egungo estandarrak betetzen dituzten etxebizitzak eskaintzen jarraitzeko.

Eta, azkenik, adinekoentzako zuzkidura-apartamentuen kudeaketa aldatu eta alokairu-kudeaketara pasatzea baita zuntz optikoa zabaltzea eta smart egokitzea Parte Zaharrean turisten eta aisi eta turismo enpresen konektagarritasuna hobetzeko auzoan ere.

### 11. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren programa osagaiak

Programa osagaiak	Zenbatekoa	%
Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa	18.532.400,00	100,00
<b>Guztira</b>	<b>18.532.400,00</b>	<b>100,00</b>

### 12. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren diru-sarreraren ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Zuzeneko zergak	0,00	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	0,00
3	Tasak eta bestelako zergak	2.452.000,00	13,23
4	Transferentzia arruntak	2.979.000,00	16,07
5	Ondare-sarrerak	6.737.000,00	36,35
6	Inbertsio errealen besterenganaketa	1.000.000,00	5,40
7	Kapital-transferentziak	2.227.400,00	12,02
8	Finantza-aktiboak	2.057.000,00	11,10
9	Finantza-pasiboak	1.080.000,00	5,83
<b>Guztira</b>		<b>18.532.400,00</b>	<b>100,00</b>

### 13. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren gastuen ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal-gastuak	2.074.000,00	11,19
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	3.798.000,00	20,49
3	Finantza-gastuak	549.000,00	2,96
4	Transferentzia arruntak	0,00	0,00
6	Inbertsio errealak	6.364.400,00	34,34
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	5.747.000,00	31,01
<b>Guztira</b>		<b>18.532.400,00</b>	<b>100,00</b>

**14. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren. Orokorra. Diru-sarreraren azalpena**

Diru-sarreraren azalpena	Zenbatekoa
<b>3. kapitulua</b>	
Hainbat diru-sarrera	2.452.000,00
<b>3. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>2.452.000,00</b>
<b>4. kapitulua</b>	
Maileguen korrituei, Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntza	64.000,00
Donostiako Udalak emandako diru-ekarpena (maileguen amortizazioa)	2.915.000,00
Donostiako Udalak emandako diru-ekarpena (gastu arrunta)	0,00
<b>4. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>2.979.000,00</b>
<b>5. kapitulua</b>	
Etxebizitza eta aparkalekuen alokairua	6.737.000,00
<b>5. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>6.737.000,00</b>
<b>6. kapitulua</b>	
Lehentasunezko udal eskuratzearen eskubidearen salmenta	1.000.000,00
<b>6. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>1.000.000,00</b>
<b>7. kapitulua</b>	
Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza Basotxiki-Zarategi birgaitzea	120.000,00
Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza Next Generation	902.400,00
Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza alokairu babesturako	1.155.000,00
Donostiako Udalak emandako diru-ekarpena ( Next Generation enkargua)	50.000,00
<b>7. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>2.227.400,00</b>
<b>8. kapitulua</b>	
Defizit edo superabitaren ondorioz aurrekontua orekatzeko eragiketak	2.057.000,00
<b>8. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>2.057.000,00</b>
<b>9. kapitulua</b>	
Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza duen mailegua.	1.080.000,00
<b>9. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>1.080.000,00</b>
<b>Guztira</b>	<b>18.532.400,00</b>



**15. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren. Orokorra. Gastuen azalpena**

Gastuen azalpena	Zenbatekoa
<b>1. kapitulua</b>	
Langileen ordainsariak	1.533.000,00
Gizarte-kargak	541.000,00
<b>1. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>2.074.000,00</b>
<b>2. kapitulua</b>	
Eraikinen errentamendua	260.000,00
Eraikinen konponketa, mantentzea eta artapena	1.038.000,00
Hornidurak	1.196.750,00
Aseguru-primak	132.000,00
Tributuak	381.000,00
Zerbitzu profesionalak	71.000,00
Komunitate gastuak	647.750,00
Beste zerbitzuak	71.500,00
<b>2. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>3.798.000,00</b>
<b>3. kapitulua</b>	
Epe luzeko zorren interesak	549.000,00
<b>3. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>549.000,00</b>
<b>6. kapitulua</b>	
CE.03 Alde Zaharra Kanpandegi: 15 zuzkidura-bizitoki	1.230.000,00
IB.22 EL INFIERNO: 135 BOE eta 23 zuzkidura-bizitoki	630.000,00
IB.12 ILLARRA: 95 BOE	375.000,00
Lehentasunezko udal eskuratzearen eskubidearen gauzatzea	1.000.000,00
Esku-hartze handiak, irisgarritasuna eta energia-eraginkortasuna etxebizitza-parkean	2.354.431,00
Gela eskubideen iraungipena	724.969,00
NG: Alde Zaharreko telekomunikazio-sarearen konexioa	50.000,00
<b>6. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>6.364.400,00</b>
<b>9. kapitulua</b>	
Maileguen amortizazioa	5.747.000,00
<b>9. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>5.747.000,00</b>
<b>Guztira</b>	<b>18.532.400,00</b>

## 4. Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.

POLLOE, DONOSTIAKO HILETA ZERBITZUAK, S.A.

2023. urtean galerarik espero ez den arren, azken urteotako emaitza hain positiboak ez ditugu izango. Hornigaien eta energiaren prezioen igoerak eta sektorean diren aldaketak hain baikorra ez den aurrekontu bat proposatzera eramaten gaitu.

Sektore aldaketei dagokienez aurten Memora Funerariak Vascongada (hiriko funeraria nagusiak) funeraria erosi egin du eta horrek arriskuan jartzen ditu gaur egungo errausketak. Donostiarrek hileta zebitzua egiteko aukera gutxiago izango ditu eta, honekin batera, funeraria pribatu honek erraustegia izanik errausketa zerbitzuak berak egin ditzake.

Bestalde, hirian dugun beste Funerariak eraikin berri bat martxan jarriko du Memoraren eraikinaren aldamenean. Eraikin honek beilatoki eta errausketa labe berria izango ditu eta 2023an martxan jarri daiteke.

Bi gertaera hauek Polloeko errausketetan, nahiz eta gure prezioa merkeago izan, zuzeneko eragina izango dute.

Gainontzean, neurrizko aurrekontua egin dugu, ikuspegiak errealistak dira eta, egoera berezi hauetan, zerbitzuaren kalitatea mantentzeko asmoz.

Onbideratutako egitura ikus daiteke balantzean: laneko kapital positiboa eta emaitza positiboak mantentzea ere espero ditugu egoera hauetan, nahiz eta 2023rako eskasak izan.

Zaintza-lanei dagokienez, gure kasa moldatzen saiatzen gara ahalik eta gehien.

Udal beharrei erantzuna emateko, 400 mila euroko dibidendua aurreikusita dago 2023an urteko emaitzen arabera eta egin behar diren inbertsioen arabera ordainduko dena.

### 4.1. Diru-sarrerak

Errausketak eta lurperaketak gutxi gorabehera diru-sarreraren %45 dira. Urtero hilobien titularrek ordaintzen duten hilerrien mantenimendu tasa %30 inguru eta hilobien garbiketa zerbitzuak, marmoldegi lanak, hilobien alokairuak eta bestelako zerbitzuak beste %25a

## 4.2. Gastuak

Pertsonalari dagokionez (3 administrari, 6 lurperatzaile, 1 erraustegiko langilea, 1 gerentea), % 3ko igoera ezarri da 2023rako. Gaur egun ditugun baja luzeak epe laburreko kontratazioen bidez betetzea aurreikusi dugu. Bestalde, Donostiako Sustapenak eskaintzen dizkigun kontratazio aukerei adi gaude.

Lege aholkularitzan, pleguak prestatzeko eta bestelako kontratazioak lantzeko, 29 mila euro aurreikusi dira.

Garratzintsu diren beste gastuen artean, ohikoak diren marmoldegi lanak, hilobien eta bulegoen garbiketak eta lorategi lanak ditugu.

### 16. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.ren programa osagaiak

Programa osagaiak	Zenbatekoa	%
Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.	1.403.000,00	100,00
<b>Guztira</b>	<b>1.403.000,00</b>	<b>100,00</b>

### 17. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.ren diru-sarreraren ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Zuzeneko zergak	0,00	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	0,00
3	Tasak eta bestelako zergak	1.353.000,00	96,44
4	Transferentzia arruntak	50.000,00	3,56
5	Ondare-sarrerak	0,00	0,00
6	Inbertsio errealen besterenganaketa	0,00	0,00
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	0,00	0,00
<b>Guztira</b>		<b>1.403.000,00</b>	<b>100,00</b>

### 18. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.ren gastuen ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal-gastuak	669.402,00	47,71
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	625.256,00	44,57
3	Finantza-gastuak	0,00	0,00
4	Transferentzia arruntak	0,00	0,00
6	Inbertsio errealak	50.000,00	3,56
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	58.342,00	4,16
9	Finantza-pasiboak	0,00	0,00
<b>Guztira</b>		<b>1.403.000,00</b>	<b>100,00</b>

### 19. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A. Orokorra. Diru-sarrereren azalpena

Diru-sarrereren azalpena	Zenbatekoa
<b>3. kapitulua</b>	
Jarduerak burutzeagatiko prezio publikoak	1.349.500,00
Salmentak	3.500,00
<b>3. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>1.353.000,00</b>
<b>4. kapitulua</b>	
Dirulaguntzak	50.000,00
<b>4. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>50.000,00</b>
<b>Guztira</b>	<b>1.403.000,00</b>

### 20. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A. Orokorra. Gastuen azalpena

Gastuen azalpena	Zenbatekoa
<b>1. kapitulua</b>	
Langileriaren gastuak	514.540,00
Gizarte-kargak	154.862,00
<b>1. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>669.402,00</b>
<b>2. kapitulua</b>	
Hornidurak	3.000,00
Errentamenduak	13.256,00
Konponketak eta artapena	385.300,00
Kanpoko zerbitzuak	13.300,00
Hornidurak: ura, argi-indarra eta gasa	123.000,00
Aseguru primak	10.300,00
Publizitatea eta propaganda	2.000,00
Tributuak	800,00
Beste hainbat gastu	42.300,00
Zerbitzu profesional independenteak	32.000,00
<b>2. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>625.256,00</b>
<b>6. kapitulua</b>	
Inbertsioak	50.000,00
<b>6. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>50.000,00</b>
<b>8. kapitulua</b>	
Defizit edo superabitaren ondorioz aurrekontua orekatzeko eragiketak	58.342,00
<b>8. kapituluaren guztizkoa</b>	<b>58.342,00</b>
<b>Guztira</b>	<b>1.403.000,00</b>

## 5. Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa

“Ziurgabetasun lasai batekin eta elkarrekin erresilientziaz bizitzeko prestatu behar dugu” esaldia oinarri hartuta, horretara jarriko gara Donostia Kulturaren, datorrenak entrenatuta eta sasoian harrapa gaitzan.

### 5.1. 2023 urteko helburuak:

- » Hiritarren behar eta nahiak adi jarraitzea:
- » Oinarrizko zerbitzuak (kultur praktikak egiteko kultur etxeak eta liburutegiak) bermatuz.
- » Oinarrizko zerbitzu horiei balioa erantsiz, ikastaroen eskaintza zabalduz, liburutegiak ondo hornituz eta berrituz eta aurten, hainbesteko estimazioa duen Larrotxeneko bideo tailerra indartuz.
- » Publikoa kultur programaziora erakartzeko ahaleginean sakondu:
- » Kalitatearen aldeko apustua eginez.
- » Komunikazio digitaleko erremintak erabiliz.
- » Urtean zehar partehartze eta asebetetze datuak zehatz jarraitu unean uneko ebaluazioak eginez erabakiak hartze bidean.
- » Hiriaren nortasunean eta hiritarren zubigintza eta kohesioan alea jartzea, artearen eta kulturaren bidez ziurtasunik gabeko garaiotan.
- » DK-ren aktibo nagusia pertsonak direnez erakundeak bizi duen egonkortze prozesua burutzea (behin-behinekotasuna %8aren azpira murriztea ekarriko duena).

### 5.2. Kontu nagusiak

2023rako Donostia Kulturak duen aurrekontua 31.179.049 eurokoa da, iaz baino % 6,33 gehiago. Gastuak honela daude banatuta: personal gastuak 14.390.211 euro (%46), gastu arrunta 16.065.543 euro (%52) eta irabazi asmorik gabeko elkarte zein jaialdien antolaketarako emandako diru laguntzak 723.295 euro (%2).

Pertsonal gastuari dagokionez, igoeraren aldagai nagusiak ondorengoak dira. Alde batetik %3ko lansarien igoera dago aurreikusita 2023rako. Beste alde batetik, Lan Erreformaren

